

## EUSKAL IDAZLEAK UMEZURTZ

*J.S.M.*

Egan-en 1986ko 5-6 zenbakiaren atarikitzat Galiziako Ihardunaldietako txosten eta erabakiak aurkeztu genituen. Andu Lertxundi-ren kezka edo 1985eko 3-4 eta 5-6 zenbakietarikoetan Bernardo Atxagak, zein guk agertuak; azken batean, antzerakoak dira. Orduango bezala, orain ere, badakigu euskal literaturgintzarako arazoak berez direla oso nekezak eta konplexoak, idazleek ez dutela beren interesen aldera jokatu ahal izateko aukera gehiegirik guerean ere, hedapen urridun hizkuntzak berengan dituzten eragozpen larri guziak leporatuak dituztenez.

Euskal Idazleen Elkartearen sortzeaz baganeukan esperantza pixkibat, baina bere lehen helburuetarik desbideraturik ikusten dugu, agintariek administrazioaren lepora hartu nahian. Mokadu ederra arrantzat dabilzanentzat, gaurko egoeran etxebarnetik begiratu. Gainerakoan, herbestera begira —barnetikoa antolatu baino lehen—, ihardunaldiak han, antologi ahulak hemen, hizkuntz erakusketan mixeria agerraraziz, azalezko itxuran han-hemenka... Kanpo-larrosa, etxe-kardo eta, era batzutan nork daki ez ote gabiltzan, auzoetan uso, etxean otso. Ekintza horietan, lehenagoko denboretan, edonor sartzen ginen, babestuko zuen erakunderik ezaz. Gaur ordea, erakundeei, dagokiena betetzea eskatu behar zaie, hizkuntza eta hizkuntzari erasten zaion literaturgintza gure herriaren ondarea edo edukina direla ulertarazi arte. Horiek gabe ez dugula nortasunik, eta nortasunik gabe ezta ere politikazko arrazoirik, euskaldungoa jatortasuntzat harturik oinarritzen dugunontza.

Euskal idazleek bide luzea garatu beharra dute eskubiderik tipien jabe egiteko. Jaurlaritzaren politikak inprimategi industria laguntzen du, argitaletxeen bidez. Behin eta berriz eskatu beharko zaio berak subentzionatzen dituen argitaratzeileei autoreekin hitzarmenak (kontratuak) eginaraztea, laguntza horiek lortu nahi baldin badituzte. Ez da asko eskatzea. Bestalde, euskarazko argitalpenen tiradak hain tipiak izanik, edizio numeratuak egitea; hori guti kostatzen denez gero, eta bai egile eta bai jaurlaritzari kontrolerako lagungarri zaionez. Tranpa egiten duenari gehiago laguntzarik ez emateko meatxuak erraztuko luke legezko dena betetzea. Oraingo era honetan ematen diren laguntzat euskal idazlearen kaltetan direnez gero, literaturaren eragina motel-tzen bai dute. Gainera, euskarazko liburuak argitaratzeko, laguntza horrek ez du begiratzen: itzulpena eta sorketaren berezkuntza, ezta ere berargitalpena eta lehen argitalpena. Beraz, ez du literaturgintza era egokiz bultzatzen, bai ordea traba eta nahasmena sortzen. Zergatik? Ba dirudi inprimategiari laguntza emateko soilik pentsatua dela eta berdin zaiela sorketa zein itzulpena edo berargitalpena; berdin, itzulpen txarra edo ona, bizi den idazlea edo zendua.

Bitartean, idazleak, diru iturriren bat lortu nahirik, sariketetara. Egunero loteriarra jokatu beharra. Zortearen zorira begira egon behar ote da bere izate jatorrak bereizten duen herriaren idazle jatorra? Non da ondarearekiko ikuspena?

A! Baina, egunkariak ere, noizik behinean, herriko jaiak direlako eta abar, handik edo hemendik harturiko artikulu edo ipui argitaratuko diote, ohorea janaritzat eskainiz. Zeren, jakina da, ba, letrak ogibidetzat dituzten horiek literatoei ez dietela ezer opa, ez dirurik, batzutan, ez eta ere jabetzarik; zabalkundezko mesedea egiten duten ustetan, itxura onezko lapurketa eginez. Santo Tomas, zaindari handia, ikus eta sinets!

Nor ote da euskal idazleetan egileei eskubidez tokatzen zaien legezko den salmenten % 10 gutiengo hori jasotzen duenik? Hortik ikus zein urruti gauden bizi diren idazleen lanak, hilenenak eta itzultzaileenak, behar duten mailaketa jartzetik. Era berean, lehen argitalpenak eta berargitalpenak mailakatzetik. Edizio zenbakituak eskatu? Hori txorakeria! Zertarako, argitaratzeileen jokaera garbia ez dena eta inprimategi industriaren kaltetan baldin bada?

Horregatik, gaur egun, euskal idazlerik gehienek inprimategi frogazuzenketak errotan duen denboraren baliorik adina ere ez dute kobratzen beren lan guziagatik, eta inork ere ez linotipista edo inprimategiko konposatzaileak adina. Xelebrea ez ote liburu sortzaileak traskribatzaile-

leak adina ez kobratzea? Nola nahi dugu gure hizkuntzak hain beharrezko duen edukina suspertzea?

Guzi hori guti balitz, hau xeblekeria!, oraindik “licencia fiscal” eskatuko zaio inoiz edo behin irrati edo egunkari baterako lantxoren bat eskatzen zaionean, diru iturri sendoen entresakoko lana balitza bezala.

Bestalde, baita ere, esan zaigu irrati eta telebistarako gidoigintzan ez dakitelako ez zaiela lanik eskatzen. Egoera horretan, herbestetara “royalti”ak ordaintzea hobe. Baina, kulturaz zerbait dakiten ustetan dauden jaun horiek noiz ohartuko ote dira urteetako ekintzan egiten dela idazle, eta gidoigile izateko aski dela hamabost eguneko ihardunaldia?

Kontraesan horiek berrikustean, argi dago euskal idazleentzat plangintza seriorik eza gure erakundeen aldetik; egungo idazleak Lurdesko mirakuluekin sinesten ez duten garaian. Hori hola delarik, irakurle, ulergarri deritzagu herbestean ate joka hastea; zeren euskal idazleak, gauza batez daude ziur, eta hori aitortu beharrea aurkitzen naiz: kanpotik hartu beharko dutela barruan ukatzen zaien itzala.